


Informazio Buletin Digitala

Uztailak 2026

Ziberiruzurrak: zaindu zure negozioa oporretan zauden bitartean

Zibergaizkileek udako ohitura-alaketak baliatzen dituzte iruzurrak areagotzeko: mezu elektroniko faltsuak, identitate-ordezteak edo banku-iruzurrak. Egon adi, egiaztatu informazioa eta babestu zure sarbide digitalak arazoak saihesteko eta udaz lasai-lasai gozatzeko.

[+ Info](#)





Auzoko jaiak: erakusleihorik onena zure negozioarentzat

Auzoko jaiak aukera paregabea dira bezero berriak lortu eta zure negozioari ikusgarritasun gehiago emateko. Aprobetxatu bisitari-kopuruaren igoera, aurkeztu zaitez ondo, komunika zaitez modu egokian eta eman ezazu hurbileko arreta. Esperientzia on batek ohiko bezero bihur dezake bisita puntual bat. .

+ Info

Negozioaren kudeaketa hobetzeko laguntza

Laguntza hau **Bizkaiko 5 eta 50 langile bitarteko enpresa txiki eta ertainetara** bideratuta dago. Helburua da haien kudeaketa hobetzen laguntzea antolakuntza arloko berrikuntza-proiektuen eta etengabeko hobekuntzaren bitartez. Gure sarearen parte diren enpresei aholkatu eta laguntza izapidetuko diegu.

+ info



BERRIZ-
ENPRESA



Negozioa eskualdatzeko laguntza

Zenbait laguntza-programek helburu komun bat dute: Euskadiko negozioek aurrera egitea bermatzea. Gure sarearen parte diren enpresei aholkatu eta eska ditzaketen laguntzak izapidetuko dizkiegu.

+ info

Bezeroen itxaropen berriak: hurbileko merkataritzarako gakoak

Erosteke modua aldatu egin da: bezeroak informazio gehiago dutela etortzen dira, aurrez aurreko esperientziari esperientzia digitala gehitzen diote eta itxaropen desberdinak izaten dituzte.

Kontsumitzaileek garrantzia zeri ematen dioten jakinda, aldatetara egokitu gaitezke, eta, aldi berean, ez dugu haien hurbiltasuna eta konfiantza galtzen.

+info





Gurutzaontziak Getxon: egutegia eta informazio interesgarria

Gurutzaontzietako 75.000 bidaiari inguru etorriko dira Getxora uztail amaieratik abuztura bitartean. Egun batzuetan besteetan baino jende gehiago iristea espero da. Urte amaierara arteko geldialdien egutegia kontsulta dezakezu, baita anezka-autobusaren zerbitzua non dagoen eta establezimenduei buruzko gomendio batzuk ere.

+ info

Beste aldizkari digital batzuk

Getxo Enpresa

www.getxoenpresa.com

info@getxoenpresa.com



Arene Kalea, 22, 48991 Getxo, Bizkaia

[Política de Privacidad](#)

